

zeruko ARGIA



IDAIZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

Oinatiko teilagintza eta beste

“Hainbeste teila eta ladrilu behar den lurralde hontan...”

Gipuzkoa aldean XVIII gizaldiaren hasieratik-edo, Europako haize berrien eragina nabari dela, aitortu beharko bertatik.

Geroago sortuko zen “Sociedad de Amigos del País” elkarteko gizonak, Peñafloredako kontea, Manuel Inazio Altuna eta beste, lanean hasiak ziren nonbait. Eta halako industria ta ekonomia giro bat somatuko dugu bazterretan.

Eta, hain zuzen, 1.754ko uztailaren 12an, Pedro Cano Mucientes jauna etorri zen Gipuzkoa aldera “Corregidor” bezala. Honen deituei gagozkiola, ezin esan genezake euskaldun jatorrikoa zenik, baina garai hartan Gipuzkoa aldetik sortzen ari zen giroari erantzunaz, 1.756ko maiatzaren 13an, Agiri bat zuzendu zion Gipuzkoako Diputazioari.

Agiri hortan nekazaritza, abeltzaintza, fruta-arbela, gaztagintza, txakoli eta sagardogintza eta beste zenbait gauzez ari da poliki asko.

Baina, batez ere, industria eta nazioarteko ekonomi alerra indartu eta zabaldu nahi lituzke eta hortarako hartu behar hirakeen neurriak eta beste adierazten dizkio Gipuzkoako Diputazioari.

Badu aparteko oharpen bat eltzegintza ta igeltsugintzaren inguruan: alegia, “sukaldeko ontziteria guztia Arabatik eta Gaztela aldetik datorrela Probintzira eta hori, ontzi haiek barnizatzeke gaia Seguratik eramaten dutelarik”. (Seguratik idazten du berak, Zeraindik jarri beharrean).

Eta endotik badu beste zerbait ere gure gaurko gaiari ondo datorkiona: “hainbeste teila eta ladrilu behar den lurralde hontan, Frantziako teilaginen eskabide eta kasketaldiei begira bizi dela hemen jendea”.

Gipuzkoako Diputazioak ez zuen bertan behera laga azken oharpen hori. Eta 1.756ko uztailaren 7an Delan bildu ziren “Batzarre Nagusian” eskubide ta erraztasun haundiak emango dituzte teilagintzaren alde. Añibidez: Herriak edo herriko norbaitek teileri bat maiztergoan jarri nahi badu, bertako bati emango zaio, ahal izatea behinik behin, frantsesak bezain abilaik bait dira langintza hortan. Eta kanpotar bati ematen bazaio, berriz, errentamenean, behartuak izango dira lanbide hori hemengo batzuei erakustera ere. Hortarako, eta erraztasunak eman nahian, herri-etxeke otea debalde izango dute eta egurra, berriz, sukaldeko egurraren prezio berean. Herriak su-bastarik gabe ere eman zezakeen teileri bat. Eta azkenik, langintza hortan zebiltzen gipuzkoar guztiek ez zuten herriko zerga eta inpuistorik izango.

Izan ere teilagintzak bazuen gure eskualdeetan “tabu” edo horrelako zerbait: “bajeza” jotzen zuten teilagintzako lanbide hori, eta euskal frantsesak izaten ziren gehienbat langintza hortan zebiltzenak. Udaldean azaldu ohi ziren gure lurraldeetara, neguan berriz ere beren etxetara itzultzeko.

Oinatarrek, ordea, Probintzitik aske, kantoi be-rezi bat egiten zutelako-edo, ez ziren “tabu” edo delako hortara gehiegi makurtu eta teilagintzaren az-tarnak nahikoa zaharrak dira Oinati alde hontan: XV gizalditik hasita bai, guttienez. Honegatik euskal frantsesen artean ere, oinatarren batzuk azal-tzen dira frankotan.

1817an Gipuzkoako Villarrealen egindako zenba-keta edo zenso batetan gizaki bakoitzaren lanbidea



Oinatiko plazan jai (Plazaola Argakia)

aipatzen da, eta, hain zuzen, teilagin bakarra dator, oinatarra bera.

Arantzazuko Santutegiak ere bazuen bere teileria, eta lantegi hartan buru egiten zutenak oinatarrak izaten ziren gehienean.

“Economía práctica de Aránzazu” delako liburuxka badator albiste jakingarri bat ere: 1750 udan-bidean, bi labe-aldi erre zirela Arantzazu konbentuko teileri hortan: Joan Aranburu eta Santos Madina, oinatarra, izan ziren teilaginak.

Geroago teilagintza indartzen doa Oinati alde hontan. Eta asko ta asko izaten ziren kanpo herrietara ere zabaltzen ziren teilaginak.

Ataundarrek ikazkintzarako bezala, oinatarrek teilagintzarako joera gorde zuten beti.

Arantzazuko errotako Felix Ugarte zaharrari (94 urte beteak ditu) kontu hauxe jaso nion behin batean:

Udaberria datorrenian,
nik jakingo det zer egin:
atxurra eta palia artuta,
Naparroara teilagin.

Teilagintzak beroa eskatzen zuen, lurrari bere he-zetasuna atera eta lehertzeko. Horregatik Apirilean-edo hasiera ematen zitzaion teilagintzari eta uda igaro artekoa izaten zen lana.

Eta negu bidean, zer egiten zuten Oinati alde hontan, galde lezake norbaitek. Eta nik erantzungo bertatik: manastak (“otarrak” deitzen zaie beste zenbait herritan). Neurri eta era askotako manasak.

NON ZER

- BIHOTZA ERDIBITURIK
Larrescro 3 garrenean
- BONBA H
A. de Fernandez 3 garrenean
- TXILE, MUNDUKO LOTSA
Mandiola 5 garrenean
- EUSKAL GIZARTE HAUTSIA (eta III)
Azurmendi 6 garrenean
- MALLABIKO EUSKAL JAIA
Bajauri 7 garrenean
- OIÑATIKO JAIK 11-12-13-14-15 garrenetan

Manastagintza ere Oinatiko langintza bat izan da beti.

Eta manastagintzaren inguruan gabiltzanez gero, Arantzazuko baserriar zahar bati entzundakoa ematera noa. Nuarbeko Erroztiola zeritzaion burni-ola gelditu zenean, oraintxe izango dira ehun urte pasatuxeak, Matxinbenta eta Nuarbeko zenbait langilek egocera gorrian bilatu omen zuten beren burua: lanik ez, eta lanik ezean, familiarentzat ogirik ez. Huraxe bai zela harria! Eta zer asmatuko, eta Oinati alde-tik manastagintza ikastea erabaki omen zuten; baina oinatarrek ez zeuden beren langintzako izkutuak saltzeko.

Baina halako batetan, hara non datorren matxinbentari bat Oinatar. Garai hartan Joakin de Igartua omen zen apaiz Matxinbentari, oinatar jatorra bera, eta oso xelebrea zaharrek diotenez, eta honen laguntza ere, bere feligresak maite zituzenez gero, tartean izango zuten seguru aski.

Dena den, arestian aipatu dugun matxinbentarra sartu zen harremanetan oinatar manastagile batekin. Eta agindu ere bai noski: “Ontzurako bat emango ziola eta manasta haundi baten barruan poliki asko gordeta, eta gauzez aterako zuela Oinatatik”.

Baina manastagintzaren izkutuak saldu zituelako eraso latzak eraman beharrean izan omen zen gizarajo haundia oinatarren aldetik. Dena den, oinatar manastagile bat izan zen Nuarben erroak eman zituena eta bera izan zen eskualde hartako otargintzaren lehen maisua.

Geroztik, urteak zehar hamaika otar eta manasta eder atera da alderdi haietatik.

Fr. Jose L. LASA

TXILE MUNDUKO LOTSA

Chileko militarrek ondo zentsuratzen badituzte ere, iristen dira oihartzun batzua mundura. Ikaragarriko zapalketa eta eragozpena da, Santiagon, jabe. Langile talde batzuen azkeneko oinkadak Santiagoko hauzoz baztertuenetan militarren metralletaz amaitzen ari diren bitartean entzuten dira herioaren hotsak, millaka espetxeratuaren garraxia, ezkeriar agertu izan den edozeinen ehi-za. «Patria y Libertad» delako faxisten ekiñaldiak.

Santiagoko bi zatirik haundienetan millaka lagun izan dira barrura sartuak. Espetxeratu hauen artean zenbat ote dira Hego Ameriketako beste zenbait herritatik ihes eginak Chilera, babes politiko billa? Zer egin behar dute horiekin? Bere sorterrietara bidaiari gartzela edo heriotza aurki dezaten? Allende babesa emandakoekin zer gertatuko da? Ginebratik Elizen Konseilulu Eumenikoak hauen alde dei bat egin du. Bainan entzungo ote dute dei hau? Mundu guztiaren hitz jarioaren artean abots triste bat besterik ez ote da izango Chileko eskuindarrentzat?

Berriz ere munduak bere bihotz samina agertu du. Nola ordea? Sobietarrek eta bere lagunek «erabat gaitzetsiaz» baina inolako ekintzarik erabaki gabe. Alemaniako eta Austriako kantzilerrak ere gauza bera. Europako Ipar aldeko herri batzuek gehixea egin dute, Chilera emanak edo aginduak zituzten diru laguntzak moztuz alegia. Mexikok harremanak hautsi egingo dituela agindu du. Turkiako militarrek bere ere «militarrek ekintza politikotik aldentu egin behar dutela» esan dute «edozein herritan eta edozein baldintzapetan». Ameriketako Estatu Batuak badu zer eginik: Une gogor honetan gertatutakoez ez duela berak zer ikusirik adierazi dio munduari. Frantzia eta Britainia Handia isildu egin dira, alfer hitzik ez esan nahi eta. Eta gutxi batzua —Brasil, Uruguay—, militar batzordearen alde daude.

Chileko nahigabeak UNOn ere eztabaidaren bat mereziko du. Man izango du aukera ederra kolpe hontaz duten iritzia agertzeko. Bainan ONUk berak ze neurritan egin dezake ezer? Lehen ere bere eziña argi asko agertu izan du.

1956aren bukaeran ONUren Idazkaria alferrik egon zan Budapest-eko gobernuaren baimenaren zai. hara agertzeko. Orduan ONUk gaitzetsi zuen sobietarrek Ungria egiña. Baiña ez zioten entzun ere egin nahi izan.

1968an berriz, Txekoslovakian gertatuaz ere, ONU haserratu zan baiña Moskuk aditzera eman zion ez zedila sar besteren etxeko kontutan.

Urteak dira nazioarteko elkarte ospetsuena dan hau legea eta morala non dauden aldarrikatzen lehertu beharrean dabilela. Baiña zigorrik gabeko lege bete beharrak askori farre egin arazten die.

P. MANDIOLA

ETXEAK SALGAI NAFARROAN

Ultzaman: — Bat nekazari etxea, 10 Ha.
Belardi onak eta ura ausarki.
Txekor azteko pabelloi aundi batekin.

— Beste bat bizitegi ederra bi pisotakoa eta 30 area.
Biek ura eta elektrika indarra onak.
Xehetasunak eskatu 503067 telefonora, Nafarroan.

NORK KUKURRUKU!!!



OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

100% en certifikado etasa

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS. 46

GAZTEZ (Vitoria)

Kontu emen! Euki gogoan!

Adiskide ta etxekoakunok!

Zuen enmasteentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukaldarako apaingarri

Eltze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeko aukerakoa SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»

Juegos Espérticos y juego Cubierto «RADAR»

LANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR

ESKORIATZA (Gipuzkoa)

Txile, kontrairaultzaren ordua

Munduko ajenzia guztiak egunero errepikatu dituzte Txileko berriak. Egun batzuez, Txile izan da, hain zuzen, mundu guztia begira zegoen lekua. Eta Txilen gertatu denak ez dut uste gutxiago merezi duenik. Izan ere, gertatu dena gizaldi hontan gertaturikoen artean goi mailan jarri behar dugu.

Allende eta Unidad Popular delakoaren asmo eta egintzak pikutara. Hori da denok dakiguna Baiña zergatik? Hortan dago kokka.

Bazterretako «ezkeriak» (bere burua ezkeriarizat dutenak, ezkeriar ez izaki, noski), arpegi arrotz batez dabilzala ikusiko dituzu egun hauetan. «Bage- nekien; gertatu behar zuen; Allenderen asmo erre- bisionistak porrot egin behar zuen eta porrot egin du». «Ezin daiteke legalidade barruan horrelakorik egin».

Egunkari faxistek ere horixe bera esan dute, funtsean. Alegia, ezin diola komunismoak botereari etsi, armen bidez ez bada. Eta bla, bla, bla...

Txilen gertatu denari buruz mintzatzeko, gaur ez daukagun gauza eta dato asko behar genuke. Esan nahi dut ongi eta sakon mintzatzeko. Baiña ezinbestean nere iritzia emango dut. Nere iritzi apala. Ge- roak, historiak, gauzak ikusteko gaur duguna baiña ikuspegi zabalago bat emango digu. Baiña gaur esan dezagun zerbait bederen.

Lehendabizi, Allenderen beraren itzak aipatu nahi nituzke: «Estamos en el Gobierno, pero no en el poder». Hala zen. Unidad Popular delakoaren alde sindikatorik andien eta potenteenak ziren. Jende xehe- aren artean militante asko. Beste jendeen artean ere bai. Ekonomian kontrol gutxi, ordea. Zerbait esate- kotan, «Pies de barro» deituko nioke Allenderen go- bernuari.

Oposizioan, Kristau Demokrazia: Oso potentia. Eko- nomiaren ariak mugitzen dituen, ein aundi batean behintzat, Hauek, nahiz eta formalki amerikanoen imperialismoaren kontra egon, ez dute behin ere funtseko aldatetarik eratu alde hortatik, nonbait beren interes ekonomikoaren kontra jokatu zuketealako. Allende gogorki mintzatu da askotan Kristau Demo- krazioaren aurka, Frei eta ondorengo zirkatze eten gabekoa zela-ta. Allenderen gabinetean erru guztiak ongi aprobetxatu dituzte demagogiarik merkeena egi- teko; hala lortu zuten beren jarraitzaileen artean huela oso gogorak eratzea (1), eta, azken finean, Txileko egoera jasangaitz bihurtzea. Eta, ez ahaztu, militarrek zeharo kontrari jartzea Allenderen gober- nuarekin. Txileko armada, ere gaurdaino «neutral» bezala artua, «golpista» bihurtu da, Ego-Amerikako hainbeste erresumatakoak bezala.

Eskuindar ultrak ere ez dira geldirik egon. Ameri- kanoek ongi pagatuta, Allenderen gobernuaren lehe- nengo egunetik zirkatu besterik ez dute egin. Allen- de boterera igo baiña lehen ere bai; ez ahaztu Schnei- der-en eriotza. Asesinatoak, erreketa eta abar. Ge- rogo ere M. I. R. delakoaren militanteekin burruka irekia mantendu dute.

Bestaldetik, M. I. R. delakoa. «Movimiento de Iz- quierda Revolucionaria», alegia. Hauek ere Allenderen aurka «errebisionista» zelako. Ezkerrena egiten ari zirela-ustez, eskubirena egin dute. Nere uested eskuin- dar ultrak («Patria y Libertad») baiña eskuindarago gertatu dira funtsean. Haien eragin objektiboari eta ez haiek «uste zutenari» begiratzen badiogu behintzat. Zeharo ezagunak dira jokabide horiek, eta Enskale- rrian, zer esanik ez.

«Estamos en el gobierno, pero no en el Poder». Bai. Behar bada azkarregi joan nahi izan zuten, oiñarriak zeharo tinto ez zirelarik. Aginte politikoa bai, baiña aginte ekonomikoa ez. Eeta gainera, etsaiak alde guz- tietatik, ez dira geldirik egon eta, esan dugunez, «ez- kertiarrak» (eskuindarrak, alegia), «Allenderen erre- bisionismoaren kontra» egin dira (2).



Orain zer gertatuko dan esatea zaila da

Oiñarriak tinto ez zirelarik, amerikanoek (Iparra- koek) zuhur jokatu dute bere interesen alde, eta na- haste borrate hortan mementorik egokiena aukeratu dute militarrei eragiteko.


Orain zer gertatuko den esatea zaila da. Gainera berriak gutxi dira, zeharo nahastua baita oraindik Txileko egoera. Baiña Argentinan gertatu zenaren antzekoren bat espero dezakegu. Interesgarria izango da, baita, Kristau Demokrazia azkenean ze aldetik jarriko den jakitea, ere ze militarrek, bere azken txos- tenean, alderdi politikoen ezetapenez itzezin dute. Petto egin dute «demokratek», beraz.

Munduko «progre» guztiak kontent dira. Baiña beti bezala xilen zer gertatu den aztertu gabe. Bi- tartean ere zenbait P. C-k ikasteko parada izan du. Eta guztiak ikusi ahal izan dugu ipar amerikanoek gogor jarraitzen dutela. Eta langilleriaren konkistak orain ere, izerdiz gain, odolez pagatu behar direla. Lana eta bizitza bera erosten diotela.

BAJAURI

(1) «Huelga de camioneros» delakoa, militarren «punch» —a baiña egun batzuk lehenago. Kamionero- en sindikatoa Kristau Demokraziak kontrolatzen du.

(2) Batez ere Unibersidade mailan (burges txi- kien abia nunbait) antolatu dituzte bere borrokarik gogorrenak M. I. R.-ekok.



motriku

GUBUTZE DONEAREN JAIK

Igaro zaizkigu Santa Kutz jaiak, azken garaia aurretik ez bezela, aundikiro eta alaitasun betean igaro ere. Egun eguzkitsua eta giro ezin ohea eskeini zizkigun aurtengo Kalbario jai egunak. Oitura zarrari jarraituz goiz goizetik Kristo Kalbarioaren baseliza aundi eta bikaina erritarrez inguratutik arkitzen zen. Izan ere Kalbarioa dugu gure erritar, kaletar, baserriar eta arrantzaleen bil tokirik eta otoitz lekunik samurrena. Ikusgarriak ziren Kristo Kalbarioaren omenez egin ziren elizkizun eta jaialdiak.

Oraindik ere badago bai, gure erritarren artean Kristo Kalbarioaren ganako maitasuna eta biotz-berotasuna.

UMEEN EUSKAL JAI

Iraillaren 15ean, ospatu zen, GOIZEKO IZARRA ELKARTEAK eratu, umetxoan euskal jai. Jai zoragarria benetan. Aspaldiko urteetan Motriku ikusi ez bezelako jai. Ikustekoa zen goiz goizetik erriko umetxoak, guziak euskal oiturari dagokion eran jantziarik, erri osoan zabalduta zuten euskal usai eta alaitasuna. Goizeko amarretan, txistulari eta dantzari talde guziak bildu ondoren txistularien biribilketaren doinuak guziak bat-batean ekin zituen kantari eta dantzari, erri osoaren pozkarri. Arratsaldean berriro, Txurruaren neperantzen dantzatu zituzten izan ditezkean dantzaldirik politenak, guziak bat-batean, bizi eta egoki dantzatu ere. Irurogei txistulari eta seireun dantzarik parte artu zuten.

Ondarrotatik iru talde, KRESALA, TXAMPA eta TXISTULARIAK. Eibarko KEZKA. Elgoibarko IZARRA. Markiako ZERU-TXU. Plaentziko AMETSA. Elgetako OSKARBI Oñatiko ONATZ, eta Motrikuko GOIZEKO IZARRA.

Antolaketa aldetik, dena ondo, zuzen eta egoki antolatua egon zen, beraz gure zorian berroenak GOIZEKO IZARRA ELKARTEARI bere lan txalagarriatik. Berdin bertan parte artu zuten dantzari eta arduradun guztiak.

EASO ABESBATZA

MUTRIKUN

III onen 15ean, Kalbario txiki egunez, gaueko amar eta erditan EDERENA aretoan, Donostiako "EASO" abestalde bikainak, goren goreneko kantu jardunaldia eskeini zizun, abes-taldearen zuzendari Arorenatar Iñaki jauna izanik. "EASO" abesbatzako abeslari aipatuek dakiten bezela abestu ere. Bere kantuzko jardunaldia oso atsegin izan zitzaion entzule guztiei eta etengabeko txaloak eta zorion-agurrak berroenak jaso zituzten.

Abesaldearen asieran, Beloki gazteak itz erraz eta euskara garbian egin zuan omenaldiaren eskeintza Motrikuko abesbatz zaarrek zuzendari ospetsu izan zen Salbador Kormenzanaren alde.

Abestaldi bitartean, tarteka tarteka, argi eta garbi azaldu zizun, Motrikuko Abesbatz zaarrak izan zituan garaipen aldiak ere. 1904. urtean Iraillaren 11an, Donostian izan zen abesaldearen sariketan, Motrikuar abeslariak leenengo saria jaso zuten: 1906. Uztailaren 11an, Eibarko zeren-plazan berriro leendabiziko atera ziren, eta 1907. Uztailaren 24ean, ainbeste abesbatz talderen artean, leenengo saria eta ikurriña bereganatu zituzten.

Bata bestearen ondoren iru sari lortu zituzten. Eta auztaren gauerdiko ezula...!

Kresal-usai-dun kabi polita alai eta ameslari, Itsas ta leor, alde guzitan beti aidiara kantari. Kantatzen dute inun diraden abesti eder ugari, Milla zorion kantuz bizi den erri maitagarriari, Jarrai ta entsi Motrikuarrok kantuzko oitura zaarri.

ANDONEGI

algorta-getxo



Olabarri'tar Marka Aita bere abeslari txikiak

Algortan beti izan gara euskerazaleak. Eta ori olan izatea, gauza oso ona dala deritzat, erri au Euskalerriko zati bat dalako. Euskera maite izatea, euskera ondo ikastea, euskera zaintzea txalagarria da benetan, gure izkuntz au mundu guztiko izkuntzaren artean zar eta ederrena da-ta. Emen gure artean, euskera arloan gauza asko egiteko asmoak beti euki doguz. Zer dala-ta, eta zertarako olango asmoak? Gure erri au erri ikasi bat izan daiten, gure artean euskal kultura aurrera joan daiten. Baña, sarri askotan debekatuak izan dira gure asmo ederrak (ikusitako Argia, 549 zenbakia, 1973-Iraillak 9, 8'gn. orrialdea).

Ori ikusi ezker, zer egingo dozu? negarrez asiko zara? eta zer ardetzuko dozu zure negar mingotzaz? Obeto dala, deritzat, zain egotea, negarrez asi baño: gaur egiten ezoguna, bier egingo da, bear bada. Onena da zain egotea. Esan doten Zeruko Argian aitzaten dira Aita Irukoiztarrak. Bai, Algortan etxe ta eliza bi danke Irukoiztarrak, bat calle San Martin, 8, ta bigarrena, oso barria, Ollarretxen, Plenziaroko bidean. Lenengo elizan, urte askotatik ona dago euskal meza igande ta jai-egun guztietan goizeko 11-tan. Eta beste eliza barria, zer? Zeruko Argian auxe ikusten dot: Ea ipinten daben Aita trinitarioek beren eliza barria euskal meza bat!

Bai, jauna, emen natortzu ipini dala esaten: Algortako Irukoiztarraren eliza barria igande ta jai-egun guztietan daukazu euskal meza goizeko 10-tan. Neska ta mutil zintzoak etorren dira poliki poliki apaizari euren laguntza ta laguntasuna opatzen. Oso ederto! Eliza ta elizako gauzak danonak diran ezker, danok elizako ardurea eukitea txalagarria da benetan. Orixe sarritan esaten dautse emeko gazteak Olabarritar Marka Aitak, eta eliza barri onetan dabil berau bertako nesta ta mutilakaz Jaunaren etxeko gauzak atontzen, batez be euskal meza derio dagokionak. Irakurgaiak irakurtzeko ta monitorea egiteko etorren dira Mari Karmen eta Nekane. Mari Karmen larunbata arratsaldean urratuten da irakurgai ta abestiak aurretik ikusteko.

Eta zein abestiak abestuten dira? Ona emen batzuk: Alkartu danok, Artu Aita, Ona Bildots ezitia, Ostian bizi zara, Agur Jesusen Ama, eta abar. Baita ondo abestu be. Igande baten, meza ostean gizon batek diño: Eskeintzan edo ofertorioan abestu dozue Artu Aita; benetan diñautzuet oso ondo egon dala, biotzeraño sartu yat abesti ori!

Nortzuk dira eliza barri onetako euskal meza orreri ain itxura ona emoten dautsen abeslariak? Ara or argazkian batzuk: iru mutil eta amabi neska. Itxaropen onaz gabiz aurrerantzean ugarituko dira la gure gure abeslari gazteak.

Jaungoikoak egin gaitu euskaldunak, gu; Jaungoikoagandik dator gu euskaldunak izatea. Uste dot oso pozik egongo dala Jauna euskal meza au patxadaz eta itxura onaz esaten bada; gure meza au baita beste euskal meza guztiak be bai. Algortan, erri osoan, best euskal meza dagoz.

OLA

zestoa

Herriko jaiak igaro ondoren, jai hauei buruz zerbait agertzea egokia dala iruditzen zait, izan ere, herritarrok herriko gaiari eldu behar diogu eta gaur jaiari buruz agertzen bagera ere, beste zenbait alderdi ere baditugu agertu beha-

rrekoak. Bere garaia etorriko zaie. Udal etxeak zuzendu dituan jai-aldiak, beste urtetakoen antzekoak izan dira. Behar bada pelota joko aldiak izan dira, izenez behintzat (Agirre, Erostarbe, Etxabe X eta Etxabe XI), aipatzekoak. Gainontzean musika, zezenak, dulzaina eta abar, maila berdinean agertu dira.

Baina aipatzea merezi duala uste dut, hirugarren egunean herrian sortu zan giroak. Hirugarren eguna, urte askotan zehar bezela, aurteneren goren mailakoa iruditzen zait. Esan ohi da, hirugarren eguna, gure eguna, herritarren eguna dala. Herriko musika bandak goizetik gure kaleak alaitu zituen, herriko semeak, bazkaldu ondoren, musika bandari alaitu lagundu zioten. Gazteak bakarrik ez ziran ibili saltokak eta brinkokak, guraso eta urtean aurrera doazen senar emazteek ere agertu zuten beren alaitasuna, zahar eta gazteek, gizon eta emakumeek parte harturik jaiaren hirugarren egun hontan.

Eguardian, antxe agertu ziren, herritik kanpora bizi diren zenbait herriko seme, esate baterako Saemiera «Maixua», urtero urtero bere idaz lanarekin udal etxearen egitaraua jautzen duen herriko semea. Musika bandan ere, lehengo musikoak agertu ziren, berek ere parte hartu nahirik.

Herriko enparantza pil-pil herritarrez ikusteak buztada bat eman dit lerro hauek idatzeko eta honako gogoeta hauek agertzeko. Esan nahi dan guztia agertzea zail da idazlantxo batetan, baina apur bat bada ere horra hor, zestoar guztiontzat.

Herriak, herria izatea lortu duenetik barnean izan du festaren irrikia. Familiak herrian agintzen zutenean, famili girokoak

herriak sortu zirenetik, herri girokoak.

Alaitsu agertzen zeran herria, zorioneko arropa berriz, trebe eta tinko jantziat,

mendi eta baso, harkaitz, baserri, erreka, kale, eliza eta gizonen koadairak

sortua zeran herria: ZESTOA, alaitu.

Alaitsu herria, mendiko seme bai zera, menditik sortzen da alaitasuna, loreak, zuhaitzen zurrumurrua.

Mendiko semeak, nahi eta jaioa, egina, mendiz inguratuta, Izarraitz, Ertzina, Agiro, tartean,

alaitsu agertzea, da zure sena. Alaitsu ume neska mutil gazteak alaitsu senar emazteak

Eta zaharrak? gazteena bakarrik alaitu... Zahartzarrea... isil... tristurak... ilun...

zahartzarrea... familiarik eza... arazoa... erakundeak... Denok batera! zahar eta gazte erantzun,

erantzunak eta alkar laguntzak, dute egia, zailtasunek eta arazoen aurpegiz aurpegi

izango dute erantzun: argi, trebe, jator.

Alaitsu herria, eginkizunetan, bete beharretan, makur, prest, gogor, gezurraren aurrean,

giza mailan herri eta herritarren aurrean.

Alaitasuna beti herriko jai nagusietan, alaitasuna herritar guztion biotzetan.

IRUITA

galdakao

EUSKALERRIA ODOLA GALTZEN

Egun batzuk joan dire, asteak ere bai; baina gogoan ditugu larunbata arratsalde baten mundu au utzi zuten sei gazteok gure berebil bide itsuetan. Mundu ontan zorritxara, bestean zoriona izan beite. Arratsaldeko bostak eta erdiak inguru ziren. Lau mutil eta bi neska Galdakotik Areatzaruntz (erderaz «Villar») bidean ari ziren «R-6» haten, etxera etzirela elduko pentsatu bage. Galdakotik urten baño leenago, Galdakotuntz zetorren kamioi batek sei bizitza ederrok ebaki zituen. Adiskide nituen geinok, eta izenak esango ditut: Josu Ipiñazar, 21 urte; Yolanda Zama-

kona, 17 urte; Roberto Abril, 21 urte; Anjel Mari Sola, 22 urte; Marisa Sola, 20 urte; eta Andres Pollo Rodriguez, 22 urte.

Josu Ipiñazar aretzarra zen; euskaldun gurasoetatik euskaldun jatorra genuen mutil au. Kaja Ruralean ari zen lanean (Yurre'n) eta bere poztasuna ta alaitasuna erri guztiak ezagutzen eta maitatzen zuten. Batez ere, mendigoizale eta pelotari ona zen bere lagun Andresek.

Andres, Valladolid'ko erri baten jaioa zen naiz eta aurtzaroan Zea-nurira gurasoekin aldatu. Eta Zea-nurin ezi ezkeron, euskera ederra ta goxoa erabiltzen eban. Amar urte zituela Areatzara aldatuz, Gorbeko mendiri inguruetan igaro zituen sei urte arztaitzen. Orrela, euskaldun jator bat biurtu zaigun mutil au, gogoz ari bait zen gure oiturrak ikasten.

Onen bezelako eredu eder bat dugu Anjel Mari ta Marisa anai-arrebekin. Naiz ta Areatzan bizi, Durangoko Izurza auzonean jaiok ziren, eta gurasoek napartarrak; Lezaundarra ama, ta aita Murugarrendarra. Gurasoek etzekiten euskerarik, ta seme-alabok euskera ikasten ari ziren, Euskalerrian euskal izkuntza ta kultura erabili bear direla esanaz. Orrela, euskal itzaldietara joaten ziren, euskera entzutean geitxoago ikastearen.

Gauz auek ikusi ondoren, uste dut zenbat aldiz euskaldun geiogo diren iru gazte oneik, beste «euskaldun» euskera aaztutzen dabilzenez baño.

Areatzarrak ditugu beste gazte biak, Roberto ta Yolanda. Urte bete zen Robertok Madrid-en gudaritza amaitu zuela eta Araluze lantegian ari zen lanean.

Oso mutil argia genuen, gezurrik ezagutzen etzuen eta ama euskalduna izan ez arren, euskeraz mintzatzen zena.

Orain iru urte bere ama galdua izan dugu Yolanda, C.O.U.'ko ikasketak aurrera eramaten eta bere amak utzitako utsunea betetzen etxeko lanetan.

Mundu ontako burrukan ari garenok, berriz ikusi dugu nola saurituak izan garan anai auek eramatean. Ainbat zaar eta gazte joango dire burruka amaitu baño leen, inoiz amaitzen bada, baina odola dugun artean, burrukan jarraitu bear dugu naiz eta gazte auen utsunea bete ezin.

Eta, amaitzen, Yolandaren lengusu den Joxe Ramonek, bere bizi guztian lagunek aaztu ezin izango dituenak egindako bertsoak idatziko dizkizuet:

Jainkoak izango ditu loratu zeruak ondasun argitan, eta guk berriz emendik eskatu oientzat zoriona benetan.

Gogoan ditut irudiak agurra banaka esatean, zuok zorionean ikustiak jartzen nau arima batean. GOIAN BEGOZ.

JON

pasai donibane

STA. FAUSTINA

Donostiako C.A.T.-ek (Centro de Atracción y Turismo) argitaratzen duen folleto edo liburuxka hoietako bat dut esku artean; «Datos informativos» deritzana.

Gipuzkoako zenbait herriren informazioa dakar. Hona zer dioen gure Pasai Donibaneri buruz: «XV-garren gizaldiko da bere eliza eta bertan Santa Faustinen gorputz usteldu gabea gordetzen da. Hauxe bai dela hainbat gizalditako mirari harrigarria!».

Txundituta utzi ninduen. Nola esan dezakete halako gezur eta astakeriarik? Turistak bereganatzeko? Horrelaxe etortzen dira hainbat okerkeria jendearren artean; halako batean, San Pedro ber bera, bizarra eta guzti, elizatarian kani-ketan dabilela esango digute. Gauzak bere tokian laga ditzagun eta aitort dezagun egia: Gure parrokiari dagoen S. Faustinak, ez duela gorputz ustelgabeta, baizik eta argizaria edo antzeko zerbaitekin egindako gorputza duela.

Guk behintzat, hauxe entzun izan dugu betidanik. Dena dela, herri-hobeto. Eta, arren, ez ditzagun nahas elizako gauzak negoziokien!

IKASTOLA 1973-74

Euskal Herriko hainbat ikastola

bezala, gurea ere, 1973-74garren ikastaroan abiatu zaigu zenbait egun dela.

Hor ikusi ditugu neska-mutil koxkorrek bere «zorro, margo eta liburu»ekin ikastalaruntz abiatzen. Etorkizun ederra! genion gure baitan.

Ikastaroa has aurretik, ikastolako gela guztiak pintatu zituzten, zenbait gurasok parte hartuz. Bai txukun eta garbi utzi ere! Izan ere, ikastolak nahiko zor dituela ikusiaz, guraso bulartsu hauek, igel-tsero, pintore eta abarren lana egiteko prestatu ziren. Txalo zuei!

EZKONTZA

Patxo Urlezaga Garbizu, Donibane esku-baloiko sona-handiko jokalaria, ezkondu zitzaigun joan den astean. Bere emaztea, Monse Murugarren ere, ezaguna da Donostiako Anoetako korrikalarien artean eta marka aski onak eginak ditu. Zorionak izan eta euskeraz irakatsi zuen ondorengoei!

HERIOTZA

Frantxisku Etxarri, hainbat urtean harakina izana, 81 urtekin hil zitzaigun. Estropadatetik zetorrela, lehorrera salto egin eta eskaileretatik gorantz zihola, estropoz egin eta atzeraka erori zen. Handik egun batzuetara, Jainkoak bereganatu zuen. Goian Bego.

Familiakoek har bezate gure saminik beroena!!

Iñalurretak

baztan

BESTAK

Besta hemen eta besta han Abuztuko hilabetea bai bestaz ongi hornitua. Ospatu zituzten beren bestak: Bera, Ziga, Sunbilla, Oronoz, Arraioz, Amaiur, Zubirramurdi, Etxalar, Aranaz, Zubieta, Donamaria, NARBART, Lekarotz eta Legasa-ko herriek. Bestak deus makurrik gabe igaro dira, dantza eta josteta jendeak nahi adina. Iraileko hilabetean ere Santakruz eta Sanmiguelak Elbetek eta Igantzak ospatu dituzte. Orain dirrenaisetasunekin jendea mugitzen da eta herri txiki hoietan ere ikusi ditugu autoek txinurria bezala bazter guziak betetzen zituztela eta inon ere ezin kokatuz. Hala segituz hemendik hogeitertan buruan bizi denak zerbait ikusiko du.

MUTILDANTZARIK

Ikusia dago Arizkongo mutil-dantzariak badutela arrakasta. Igaz zortzi aldiz ari izanak dira Euskal Herriko plazetan barna Baztango dantzak agertuaz eta aurtan Iraileko hilabetea akitu gabe badaramazkete ia hamabi aitaldi eginak. Garbi ageri da gure mutil-dantzaren fama Euskal-Herri guztian barreiatua dagoela eta jendearren gogokoa dela. Baztandarrok pozik egoten ahal gara, hori gure sorlekuentzat ohore handia delakotz.

Azkenengo ekinialdietaik aipagarrienak ditugu, Donostian eginkakoa, Iraillaren 5ean, Donostia-ko Turismo Etxeak antolatutako Euskal-Festetan Trinitateko plazan. Egun hortan Arizkongo dantzariak ari izanak dira Luzaide eta Gaztetxo taldearekin batean. Zortzi dantza-mota erakutsi zituzten gure dantzariak eta hoietaz Donostiako egunkariak mintzatu dira baztandarrei goresmenak emanaz. Iraileko hilabete hortan ere berze ekinialdi bat eta hori Sarako herri zoragarrian. Herri hontako jaiak zirela eta harat deitu gintuen eta gure aurreridean aintzinean dantzaldi eder bat egin ondoren bozkarioz etxeratu ginen lehenik saratar baten hitzak entzunik.

MARRA HORREK BEREKTEN GAITU / BAINA GURE MINTZAIKAK ELKARTZEN GAITU / HORTAZ BEHAR DUGU ELKAR MAITATU.

Egiako arrazoi hori geuren bihotzetan sarturik indar herri bat sortzen zaigu eta beti aintzinat jarraikiz lokarri maitakor hoiek behin ere urra ez daitzen.

MUXIKOAK ETA TELERINEK BILGARROARENAREKIN / BAZTANDARROK DANTZATZEN DUGU ATSEGINAREKIN.

M. IZETA

BAR - RESTAURANTE

AURRERA

Oporketak direla eta,
Urriaren haseratik 25-era itxia egongo dela
adierazi nahi die bere lagunei.

Urbietan, 12

— DONOSTIAN —

Urrut.: 411528 - 412578

GRAMAN - EKARRI'ra
AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSAIOAK

ERRI GUZTIRAKO

Urrutizkiak: 421369 - 427726

Iparragirre, 8 - DONOSTIA




YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA



Donosti'ko
Erri-Etxe'ko Aurrezki Kutxa

EUSKAL IRRATI
SAIOAK



Banen baneko azikal
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
surreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan
etorriak

Baserriaren alde

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA



GURE AURTENGO BOSGARREN ZOZKETAN

Udarako iru bizitzako zozketa ontan Noiznaiko,
Bizitzako Erbesterauen ta Aldi-jakiñeko kartillak
sartuko dira

Urriaren 6 arte jartzen diran milla pezeta
bakoitzeko zenbaki bat emango da, ta beste zenbaki
bat jarrita dauden 5.000 pezeta bakoitzeko,
milla pezeta sartu bear dira Noiz-naiko kartillan.
Zozketa, Aurrezki Kutxa Probintzialaren lantokian,
J.M. Salaverria kalean, datorren Urria 16'an
egingo da.

URRIAREN 6 arte

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA



ESTABLECIMIENTOS FERRETERIA

ayestaran

DONOSTIA

BURNI - SALGAIK

Urbietan, 25

ELECTRODOMESTICOS

ETXERAKO ELEKTRO-
TRESNAK

Urbietan, 27 - Isabel II, 2

RAILITE

LEGEZKO
ZABALTXAILLEA
Aldacenea, 4

Urrutizkiak:

44300 ta 428787

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserriar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI



IEZIN GAUZEN ESKANTZAI!

i ezkongaiok!
zuren etxerako muebleak

ilero **2.500** pezeta
ordainduz
eskura
ditzakezue

ikus itzazue azken modelook gure erakustokian

AMUEBLADORA
COMERCIAL HISPANIA

MORAZA, 3 eta 14
DONOSTIAN

SAN MARCIAL, 12
IRUNEN

EKARRERAMANAK ETA MONTAJEA UTSEAN GIPUZKOAN ETA NAFARROAN

bapatean ordaindu ezkerro deskuento arrigarriak

OIÑATIREN EDERRA

Oiñatiko San Migel jaiak berriro iritxi zaizkigu, amabi kontatu baiño lehen, esate baterako.

Eta onegaz, lehenengo, oiñatiar guztiak agurtu nai ditut, batez ere erbestean arkitzen diranak, euren jaietara etorri eziñik. Denoi agur bero bat ZERUKO ARGIAren bitartez.

Oiñati, gure erria, beti euki det edertzat baiña orain behiñ ere baiño ziurrago nago. Aurtengo udan erbesteko jende edo turistekin itzegiteko aukera izan det eta denek, aho batez esaten zidaten: «Au da erri ederra eta garbia!».

Andre jakintsu batek ere esan zidan: «Zuen alkate jaunak ez dezala utz etxe aundirik egiten eta gorde ditzala kondairarik duten etxeak». Eta orrelaxe, beste gauza asko entzun izan det uda onetan; orregatik naukazu pozik.

Baiña badet berri mingarri bat ere.

Argazki onetan agertzen dan etxea Oiñatiko Kondearena da eta urteak ditu. Delako konde orrek emen eukitzen zituen bere zaintzailleak eta orregatik deitzen zaio «Zaiñena».

Orain arte oso maite izan du erriak eta baita agintariek ere, etxe polit au. Baiña botatzera dijozen otsak dira errian, etxe berriak egiteko. Aldameneko etxe zarpatsu batzuk botatzen asi dira baiña aritzen naiz nola alkate jaunak ez duen beste erabakiren bat artu «Zaiñena» etxeari buruz. Benetan



«Zaiñena» etxea (Elorza Argazkia)

museo bat edo orrelako zerbait izatea merezi duen etxea degu au... enparantza txiki orren kuttun.

Etxe au botatzen badute, urte batean bi etxe sonatuenak galduko ditu Oiñatiko erriak: Bat Rodrigo M. de Zuazolaren jaiotetxea eta hestea «Zaiñena».

Eta Oiñatik badu erri-barrutik kanpo nahiko leku, etxe berri ziriñak urrutirago egin ditezten.

Ama Arrazolaren «Oñate» liburua asko saldu omen da eta behar bada orregatik etorriko zan aurtan ainbeste kanpotar Oiñatira.

Askoren iritzi, liburu ori euskaraz egin beharrekoa zan. Nere iritzi, bietara, euskaraz eta gaztelaniaz egin behar zan. Zorionak, bada, Ama Arrazolari eta ar dezala

kontuan oiñatiarren iritzi au.

Kanpotar asko Unibersidadea barrutik ikusteko gogoz joan dira. Izan ere, negargarria da ainbeste lagun ate-joka ikustea arratsalde-ro... alferrik, itxia egoten baita arratsaldez.

Neronek erakutsi nien lagun batzuei klaustropea eta lotsatzeko moduan dago andik ikusten dan erreka, etxe askotatik zikinkeriak botatzen bait dituzte errekarra. Lotsagarria! Eta gaitzak etortzeko ere, ez da sistema txarra.

Egunero egunero garbitzaillek biltzen dituzte etxeetako zakarrak. Ea bada saliatzen geran, orrelako kultura-ezari gehiago gerta ez dedin.

Felisa Enparantza

Oiñati

NESKA MUTIL JATORRAK OIÑATIN

Oñatz S. C. R. elkarte

OIÑATZ S.C.R. Oiñatin sortu zan 1966. urtean. Orain 260 bazkide ditu. Neska-mutillak. Lan asko egiten ari da errian.

Kultura, Antzerki, Zine-forum, Folklore eta beste orrelako zenbait gauzatan banaturik daude bazkideak eta bakoitza arduraz aurre-ramaten saliatzen da.

1972 eta 1973 garren urteetan ara zer egin duten errian:

—Ikastolako «Olentzaro» antolatu, Kultura atalekoek. «Oñati» koralak ere lagundu zien ontan.

—Oiñatiko kondairaz itzaldiak antolatu.

—Kultura astea, itzaldi, dantza saio eta beste.

—Gazteen astea.

—Gaurko gaiez itzaldi batzu (Sexualidadeari buruz, eziketari buruz, gazteen Konzilioari buruz).

—Kiroiak, dantzak, mendi-ibillaldiak antolatu eta erraztasunak eman gazteei.

—Argazki txapelketa, Gipuzkoa maillakoa.

—Antzerkiak prestatu. Mordoska

bat ari da ontan. «Gizonak eta Ez» da azkena agertu duten saioa. Eta laster, «Justizia Txistulari».

—Zine-Forum saioak. Pelikula aukeratu ziran: «Tristana», «Adiós cigüeña, adiós», «El hombre marcado», «La semilla del diablo», «Una habitación en forma de V», «Raquel, Raquel».

—Folklore atalak ere baditu 70-en bat neskatilla-mutiko. Oiñati bertako eta Gipuzkoa osoko dantzak ikasten dituzte.

Orain gazte aukeratu daukaten zailtzarrik aundiena Oiñatiko izan eta ONATZ taldean sarturik ez duden gazteena da. Beren artean gazte gehiago ikusi nahi lukete, lan aundia bait dago oraindik egiteko.

Gurasoei ere dei bat egingo nieke: Gazte auen lanetaz jabetzea eta berak zerbait eskeintzen digutenean, arretaz artu eta bere saio-etara agertzea, alegia. Oiñatiko erria jaso egiten dute orrelako gazteek.

Felisa Enparantza

IKASTOLAKO UNEAK IDAZLE

ZUHAITZARI

AMA, AITA ETA UMEA (ipuina)

Zuhaitza, zu oso polita zara. Guk jolas asko egiten dugu zurekin. Ondo ibiltzen gara.

Gu jolasean ari garenean, zuk minik hartzen ahal duzu?

Zu oso handia zara eta oso ederra.

Zu kolorinetakoa zara?

Nik asko maite zaitut zu.

Zuk xoririk ba ahal daukazu? Tomasitori asko gustatzen zaizkio xoriak. Zuk ba ahal daukazu habia zaharrik?

Gernikako arbola ba ahal dakizu zein den? Hura ere polita da bainā zu politagoa.

Tomasito eta gu mendira joan ginenean, Tomasitok esan zuen:

—Ikus xoria zuhaitz horretan!

Oinatin zuhaitz asko dagoz. Baita pinuak ere. Nik pena daukat zu ebaki egin behar zaituelako.

Zuk fruiturik ematen ahal duzu?

Zuhaitza, Nik Ines dut izena eta 9 urte ditut. Laster etxera goaz.

Ikus arte. Agur.

INES MAIZTEGI, 9 urte

Behin ama, aita eta haurra bizi ziren.

Egun batez, haurrak ihes egin zuen etxetik.

Ama eta aita bila eta bila ibili ziren, nekātuta, eta aurkitu egin zuten.

Ama barrezka hasi zen. Aita ere barrezka hasi zen. Eta haurra ere barrezka hasi zen.

Ama janaria egiten hasi zen. Umeak esan zion amari:

—Bai janari goxoa!

Amak erantzun zion:

—Eskerrik asko.

Aitak esan zion amari:

—Bai usain ona!

Haurrak esan zuen:

—Janaria oso ona da. Eskerrik asko, ama.

Eta amak:

—Ez horregatik.

Haurrak esan zuen:

—Ama, jolasera noa.

—Bai, ume. Jolas asko egin.

—Bai. Eskerrik asko, Agur, ama.

—Hor behean ijituak dabiltz, esan zuen amak.

—Ez dio axolarik.

—Bai, badu axola.

ROSA MARIA CASTAÑEIRA, 7 urte.

IRRATI ETA TELEBISTA "ZELAYA"

Etxetarako Elektro tresnak

Instalazio eta autotarako irriatiak

Patrua Kale, 10

Urrutizkiña: 78 18 07

— O Ñ A T I —

BIZENTE ORMAZABAL ELORDA


PHILIPS-en zabaltzaile bakarra
Etxerako apailuak eta erregalu-gaiak

Alzaa, 9

Urrutizkiña: 78 11 09

— O Ñ A T I —

Oiñatiko Parrokia



Oiñatiko Parrokiari erantsirik dauden etxeak. Dorrean, gizon batzuk lanean; apostoluei buru berriak jartzen ari dira (Elorza argazkia).

Oiñatiko parrokiak ere badu bere ez-baia. 1808. urtera arte, inguru guztiak libre zituen, zabal zabal. Baiña oiñatiar batzuei enparantza bat berritzea bururatu zitzairen. Orduan egin zituzten arkupeak eta zoritxarrez etxe zatar bat ere bai, parrokiaren aurpegi-aldetara estaliaz.

Baiña egin orduko damutu zitzaizela dirudi, itsuasiago geratzen baitzan.

Berriz ere, lehen bezala uztea pentsatu zuten, baiña joan dira urte batzuk eta oraindik bizirik dago oiñatiarren artean ez-bai ori. Beti itzegin izan da asko gai ontaz baiña orain sekula baiño geiago. Oiñatiar gehienak etxe ori bota dedila nahi du, ez baita etxe azal bat besterik, parrokiako arrien gainean eginikoa, eraskin utsa. Bar Txurruka delakoan bertan, parrokiako arriak agirian daude. Oiñatiar askok dio arkupeak utz ditezkeela baiña etxe ori ez. Arkitekoteek ere esana dute oso makal egiña dagoela eta ez sartzeko bertan lagun askorik. Baiña zori oneko edo txarreko dirua behar... Alako parrokia polita, kanpotik gehiena estalirik...

F. E.

SABI

ILLE - MOZTEGIA

R. M. Zuazola, 53, behean

— OÑATI —

**ELENA
APAINDEGIA**Makillaje, depilatze eta aurpegi
edertze lanetan berezia

Ramon Maria Lili, 1-1.*

— OÑATI —

BAR TXURRUKA

BANDERILLETAN BEREZIA

ZERBITZUA EZIN OBEA

Foru Enparantzan

Urrutizkiña: 78 17 18

— OÑATI —

BAR ITURRI

Jantoki-Etxe bazkai, merienda eta abar Toki ederra eta merke

Arantzazu kalea, 11

— OÑATI —

ULMA, S. COOP.ETXEGINTZARAKO ETA
GAINONTZEKO
OBRATARAKO
MAKINARIA ETA
METALEZKO
TRESNAKBERDIN
ENBASE ETA
ENBALAJETARAKO
EREOKINDEGI
ETA
GOZOTEGITARAKO
MAKINARIA

ULMA, S. COOP. Aptado, 13 - Urrut.: 781445 OIÑATIN

**TXOKOLATE****TA****GOZOKIAK****Loyola****IGARTUA ETA CIA, S. A.****TAIGAR**

MAKULUAK ETA KALE-ARGITARAKO ABEAK — KATEAK



OÑATI — VITORIA — SEVILLA

GURE HERRIKO EUSKERA

ZERUKO ARGIArako lantxo bat eskatu didate, herriko jaiak direla eta. Eta, egia esan, bada gure Oinati honetan aidakuntza nabarmen eta aipagarriarik, batez ere, ni bezala, aspalditxo honetan herriatik kanpora bizi izan den batentzat. Oinati aldeko euskalkiak —oinatiarren euskerak, alegia— antzinatik kezkatu izan nau; Aloiñapeko ibarzelaietan ez da falta gai sakonago eta aztergarriagorik noski, baina, etorri berria naizenez gero, ez nuke, oraingoz arazo korapilotsuetan sartzerik nahi, hartarako behar diren patxada eta xehetasunak oraindik neregianatu ez ditudalako. Bestalde, hemengo euskeraren egoera berriro aipatzea merezi duela uste dut, azken urteotan izan duen bilakaera handia bait da.

Ez naiz orain gure euskalkiaren bereiztasun eta aberastasunak adierazten hasiko, lan horretan Aita Izagirre, Villasante, Gandiaga eta inoiz neu ere aritu izan bait gara. Ez dira ez, aberastasun oparoak arduratzen nautenak, aberastasun hoién murrizteak eta galtzeak baino. Izan ere, gure gurasoek erabiltzen duten oinatiarrena gurea baino askoz mardulago, egokiago eta tajutuagoa da: hitzetan, esaeretan eta joskeran batez ere, zaharren euskera gazteona baino jatorragoa du. Aditzean adibidez, Oinatio neska-mutiloi ez zaigu berrogei urtetik gorakoek erabiltzen dituzten formen erdirik ere ahortzen.

Zenbait kaletar gaztek esaten dute EKARRI LEIXO, EMUN BALEUST, ESAN BALEUSKU? edo ta DAROIAZUE, GAKARZUE, ZARABILLT, NAUKOI? Ta ez gaitzezen «hikaren» hesparu ilunean sar, hor bukaerarik gabeko desegokitasunak arkituko genituzke eta. Gu mutikoak ginala, nahikoa lan ematen zigun

NOR eta NORIdun aditzak ondo erabiltzeak: «Aittari kalian ikusi xat» esaten bagenuen, «Zer ikusi xatzu... ipurdixa?» galdetzen zigiten berehala. Hori ez ezik, badugu orain okerragorik. Ez dakit non arraio sortu den edo nondik etxeratu zaigun, baina aspalditxotik ume eta gazte batzuen artean asko zabaldua dagoen gaitz bat soma dezakegu: lehen aldia orain aldiko aditz laguntzaileen bidez tajutzea. Ikus nola: «Atzo gizur bat entzun neben» esan beharrean, «Atzo gizur bat entzun doten»; «Atzo esan dotzuten»... «Atzo esan notzun» erabili beharrean, eta horrelako antzerakoak.

Honez gero zaharrale purrukate bihurtu naizela pentsatuko zuen norbaitek. Ba, ez dut nik esango hizkuntza batek, bizia baldin bada iehinik behin, mendeetan zehar ezertxo ere aldatu gabe iraun behar duenik. Baina mintzaira horrek hitz eta forma berriak bereganatzean, bere nortasun eta muintza gordeaz egin behar duela iruditzen zait. Gaur egun euskera bat baten premia derrigorrezkoa dela, denok ikusi dugu. Baina euskera batuzko askoz errazako jabetuko gara, geurea behar den bezala ikasten badugu. Gazte askok lehen baino hiztegi ugari eta batuzagoa duela, ez dago ukatzerik, baina hitzekin batera joskera eta morfologia ere zaindu beharrezkoak ditugu. Gainera, zenbait eta hobeto euskalki bakoitzeko formak ezagutu, hainbat eta aberasgarriago litzake euskera batuzentzat.

Horregatik, galdu baino lehen, gure euskalkiaren istudio sakon bat egiteari lan premiatsu eta interesgarri deritzat. Gorago aipatu dudán bezala, zenbait eginek dago, gehienetan, ordea, oinatiar ez direnek prestatu dituzte lan hoiek.

Nere ustez, oinatiarrok aukera hobe du gu lan honi heltzeko, gaia gure eguneroko mintzaira izanik, zehaztasun gehiagorik bereizi bait genezake eztabaidagarri diren puntuetan. Eginbehar honetan berehala abiatzeko, nik hasierako programa nau proposatuko nuke:

1) Oinatiarrez idatzita dagoen skribu guztiak bildu eta, ahal baldin bada, argitaratu. Batez ere, Olabarietako Arrazola etxean dagoen XVIII-garren mendeko eskuskribua eta Leonardo Zabaletak aipatzen dituen horriak: mende honen hasieran apaiz batek ateratzen zituenak, alegia. Olabarietako ale bakarra da, ene iritziz, lehen bait lehen argitaratu, edo fotokopiatu behintzat, egin beharko litzakeena, eskuidatzi hori bait dugu harroberik bikainena gure euskalkiaren azterketarako.

2) Dagoeneko eginik ditugun lan bezalio, Zabaleta, Izagirre eta beste Arantzazuko fraile batzuenaz bereiziki. Horretaz gain, Kandido Izagirrek lan batzuk publikatu gabe utzi zituela entzun dugu, eta Zabaletaren paper zaharren artean ere gauza aprobezagarri asko aurki daitekeanaren susmoa dugu.

3) Material hori kontuan edukirik, inkesta eta galdekizunen bidez galzorian dagoen formak jaso, eta pixkanaka oinatiarren sistema eta egitura guztia osatu.

Zeregin handia eta luzea dela, argi dago, baina hemendik urte batzuetara askoz nekezagoa izanen litzake. Lehendik zenbait gertu eduki arren, azken orduan presaka idatzi behar izan dut artikulu hau. Baina ez zen nere asmoa lan zientifiko bat egitea, problema bat azaldu eta nere herrikideak suspertzea baizik.

JERARDO ELORTZA

O i ñ a t i



ERMITATXO BAT

Arantzazu zaarrek ura. «Iru latatxo, zazpi teillatxo» abestu zigun olerkariak; Birjiña beltzeran eskatu eta erriak bertantxe erantzun zion maiztasunez. Erantzun ori zabaldu eta edertu egin zaigu geroztik: gaurko gure santutegi berri au. Bertantxe, eske beti ere Birjiña: «Ermitatxo bat...».

Aloña maldan gora, bada amaika bazter atsegin. Ementxe jaso du zenbaitek bere udaleku polit askoa. Eta beste ainbat euskaldun dator auetara, oinatiarrek asko, gorputzak sendotu naizaz...

Gorputzak eta arima. Aurten ere Ama Birjiña egunsentiz, lañoa beean; goietan urdiña ezti, ortxe ikusi degu Oinatio erri, Zapatan gora oinez. Ez du nunbait oraindik ermitagintza bukatu. Eta noiznai dezu olaxe oinatiarra Arantzazun, igandero; Amaren aurrez-aurre, bere etxagintzan —barrukoan— «teillatxo bat» jarri eta eguneroko istilluetarako pake eta indar eske. Arantzazu Gipuzkoa eta Euskalerrri osoarena da, bai; baiña Oinatio du bereziki —erriz, historiaz eta biotzez— oso bere. Aurkeoen antzera, jarraituko ez du orrela gogotsu bere ermitagintza axillean?

Izango du —Amak bidalita— gizon eta kristau izaten lagunduko dionik. Euskal gizatasunari eutsi dizona. Erakusbidetzat, nola aipatu ez emen, bestean artean: Aita Lizarralde zaldibitarra, Oinatio Unibersidadearen historia eta bertako zenbait langintza aztertu zituana; Aita Mitxelena bat: «Arantzazu. Euskal poema»z berak eman zion asiera euskal letren bizkortzeari; Aita Izagirre urretxuarra: Arantzazu auzoko eta kalekoen ezpainetatik, alako iraupen aundiz —«ointxe Santa Agadara fan eraingo doskue»— jaso zituan Oinatio euskeraren aberastasun bikainak. Aita Lasa murgildu da auzoko baserrien kondairan (ain zuzen, oraintxe irureun urte samigelez Zumaldetarrak Gesaltzan); Aita Gandiaga bertako folklore eta kanta zaarrek arduratu dute, eta euskal irakasle ere badezu; Aita Villasante bera, Izagirrerren lankide fin, emengo baserriarren ipuiak jaso eta Gesaltzako Grazianoren bertsoak argitarako prestatu dituna, Arantzazuko bide zaar eta toki-izenen billatzaile purrukatu... Maitatu da emen bai ondotox oinatiar izaera eta historia! Etorriko al da aurrerantz ere gogo beroz ikusi eta aztertuko dituanik. Oinatiarrek sekula guztian oinatiar iraun dezan.

Eta kristau, ori batez ere; gero eta barruagotik, zertara doan dakiala. Jainkoaren Itzak egiten dio ortarako argi: Arantzazu ontako elizkizunetan, alako benetasunez, salmo-kanta eta erri abesti aukerakoz, euskera gurean aifn ederki... Damu-giro apalean, gorako bidea obeto arki dezan. Talde eziera egokiago bat nai duala Sei-zortzi fraile ditua astero kalean, iru lau talde zuzentzen; Biblia pasarteetan gogoeta egina diardute, penitentzi naiz eukaristi batzarretan biltzen dira; kristau biziera sakontzen eta zuzertzen...

Geiago egin bear litzakeala guzi ontan? Bai noski, nun egiña bada ta, bai euskal saillean eta bai kristaugintzan. Orra guzintzako ermitagintza. «Iru latatxo, zazpi teillatxo». Ez dala asko? Apurka apurka Aloñaren babesean, oinatiar ezin jatorragoa sortzeko aifna bai: euskal gizon garbi, kristau gizon osoa.

ZURUTUZA

HERRIKO LIBURUTEGIA

Gai honetaz gura genduke ainbat dato eman, gaur egun gure Liburutegian dauden giroa erakusteko.

Lehenaz hasiko gera esanaz ZER DAGOEN.

Liburutegia danez gero, liburuak daude, hiru mila eta bostehun inguru. Haundiak eta txikiak, konsultakoak eta erraz irakurtzekoak.

GAIK ETA ZENBAT:

Literatura eta antzerkia	953
Euskal kultura	595
Umeentzako	480
Jakintza liburuak	336
Filosofia, soziologia etab	285
Kondairaz, Jeografia, edergintza	236
Erljioa	162
Jolas, kirolak eta abar	79
Denetakoak (konsultarako)	71
Biografia	34
Filologia eta lingustika	12

Garbi ikusten da, gai guztiez ba-

dagoala eta prest gaude herriko irakurleek bear dituzten liburuak irakurtzeko.

Bibliografia kontuan gure helburu nagusia euskal kulturaz espezializatzea da eta poliki poliki, bide hontan, laister izango da errealtate gure asmo hori. Igazko urtean (1972), berrogei mila pezeta inguru gastatu ziran ilburu berriekin eta aurten gehiago izango dira noski.

NORK irakurtzen dituen liburu hauek.

Galdera honi errea da erantzutea, zeren ez dira asko, zoritxarrez, irakurleak.

Baditugu berrehun eta gehiago sozio edo harpidedun (1972ko urtean), baina berrogeikaren bat izango dira benetako irakurleak. Irakurtzeko etxera eramán zituzten 1638 liburu. Liburutegian bertan egoten diran gazteak, geienak, estudiante eta eskoletako mutikoak dira. Hauek eskolan emandako lanak erabiltzen dituzte: gaztelania-ko eta europako klasikoak (litera-

tura historia... eta euskal kulturaz oso gutxi, ez bait dago horrelako girorik eskoletan. Dana dala, hemen dago gure itxaropena, irakurtzeko ohitura artzen duanak, bilatuko ditue euskal liburuak.

Hemen agertzen ditugu 1972ko dato batzuk:	
Irakurleak gizonetakoak	6.609
Emakumezkoak	1.438
Amalau urtetik beherakoak	2.424
Amalau urtetik gorakoak	5.623

Badugu Boletín edo Agerkaia ere. Orain urtebete argitara zan lehen aldiz eta gaur egun laugarren alea gabiltza prestatzen. Herri guztian zabaltzen da eta idazle guztientzat dago irikita.

Eta amaitzeko, egoki bait deritzagu, hemen dakarkizuegu Bruse-lahen (22.X.71) «Nazioarteko Liburu urtea» zela eta onartu zen «Liburu karta».

Lehen artikulua.—Gizon guztiek dute irakurtzeko eskubidea. Bigarrena.—Liburuak derrigorrezkoak dira hezitzeke.

Hirugarrena.—Gizartearen eginkizuna; bearrezko kondizio eta giroa ipintzea da, idazleak bear bezela sor dezaten beren buru lana.

Laugarrena.—Irakorla industri industri indartsua bearrezko da nazio arteko desarroilorako.

Bosgarrena.—Tresna eta giro egokiak bear ditu Irakorla industriak. Seigarrena.—Liburu sailtzalea, argitaldarien eta irakurleen bitarteko bikaina da.

Zazpigarrena.—Liburuak oso tresna egokiak dira informazio edo berriak zabaltzeko eta baita atsegin har dezagun edergintzaz eta jakintzaz.

Zortzigarrena.—Dokumentazio eta datoek ematen diote liburgintzari indar handia, zeren da gero ipintzen dute material hau irakurleen eskuetan batu eta osatuta.

Bederatzigarrena.—Aberri eta nazio arteko sal-erosketak, bear bearrekoak dira nazio arteko produzioentzat. Gainera hobetzen dituzte nazio-arteko harremanak.

Hamargarrena.—Nazio artean maiztasuna, pakea eta laguntza sortzeko asko laguntzen dute liburuak. Liburutegiko Batzordeak

JUANI

ILLE-MOZTEGIA
Eta esku-ardurak

Pl. Ramon M. Lili, 1, 1.º dcha.

— O Ñ A T I —

AUTOSERBIZIOA

Zelaya

ARAGITEGIA - TXERRIKIAK - ARNARITEGIA - JAN - EDARIAK
BARAZKIAK eta ARRAI JELATUAK
Etxeetara eramaten dira

Apaolaza Etorb., 2
Marzelino Zelaya, 1

Urrutizkiña: 78 12 22
Urrutizkiña: 78 16 55

— O Ñ A T I —

FELIX ARREGI

BANATZAILE BAKARRA PHILIPS
INDUSTRIAKO ETA BIZITEGIRAKO TXIMIST-INDARRA
LANTEGIA TELEBISIOAK EZARTZEKO, KONPONTZEKO
ETA EGIZTATZEKO.

R. M. Zuazola, 55

Urrutizkiña: 78 11 98

— O Ñ A T I —

TXIMIST

DA PONTEKO IZENA...

BLOQUES URA

URGAINDURAKO ARGITZETAN AZKENEKO BERRIAK

ETENGABEKO TXIMIST-INDARRAREN TRESNERIAK, AKUMULADORE ALKALINO MOLDEEKIN

VOLTABLOC

AKUMULADORE TEKNIKETAN EGIZKO BIRA

Celaya Emparanza y Galdos, S. A.

“ C E G A S A ”

Urrutizkiña: 78 14 40 (bost bide)

OÑATI (Gipuzkoa)
eta GASTEIZ (Araba)

EUSKAL KULTURAREN EGOERA OINATIN

Gai hau ondo aztertzeke, artikulua hau baino lan haundiagoa eta sakonagoa behar litzake. Ez dator ni hortara, zeren ez nago gertatua horretaz. Nahiago dut dato bet edo beste argitara ematea, Oinatiko giroa pizka bat adierazteko.

Datoen oinarriak hauek dira: 1) Hizkuntza, 2) Irakurtzea, 3) Irakaskintza, 4) Antzarkia, literatura, berbaldiak...

HIZKUNTZA (1)

Herri mailan franko galtzen ari da euskera. Ama-sei urtetik beherako neska-mutilek ez dabe euskeraz egiten. Baserrietakoak bai, baina baserrietan ere kale eskolatan dabilten gaztetxoek (eta gehienak dira) ez dute euskeraz egiten. Neska arteko hizkuntza gaztelania da. «Snobismoa», lelakeria dela, ez dakit, baina hori da egia.

Horriko seme gehienak jakin dakite euskeraz, baina gazteak ere, zeren da etxean guraso gshienak, eta ahaideak, euskeraz ari dira. Umeak ere, oraindik, euskeraz ikasten dituzte lehengo berbak.

Egoera geroago eta larriagoa da. Baserriko umeak kalera datoz eskolara, telebistak, zineak, tebeoak, eskolako testoak, danak gaztelaniaz. Kanpotiarrak geroago eta gehiago; lagun artean erdaldun bat sartzen bada, bat nohikoa!, erdalduntzen dira arteko berbaldiak.

Erakutsi digute hizkuntza tresna bat dala, eta tresna moduan erabiltzen dabela gizonak. Beste tresna bat egokiagoa bilatzen badu, lehena itxi eta aldatuko du. Ez ari da hori gertatzen gure artean? Baina zergatik? Zer egin genezake egoera honen aurka?...

IRAKURTzea

Oinatik beste zenbait euskal herritan bezela, gehienak euskera aldetik analfabeto gera. Ez dakigu euskeraz irakurtzen eta, idazten gutxiago, noski. Egia da eskolan ez dabela irakusten, ez eta fratsesez eta ingelesez ere, baina askok dakitza hizkuntza hauek nork bere borondatez ikasita. Baina euskeraz?

Bizpa hiru euskalzaletan ikastolatako umeak kendu ezker inor ez da kezkatzen euskeraz idazteko.

Harrigarria da, jakitea baita ere, zer irakurtzen dan. Badakit Zeruko Argiak, igaz 68 suskriptore edo harpidedun zeuzkala gure herrian, Anaitasunak 77, Jakin Argitaldaria 9, Auñamendi Argitaldaria 14, Auñamendi Enziklopediak 35, liburu dendak ez dakit zenbait saltzen daben, F. Enparanza ez izanik. Honek hamabosten bat liburu hillean. Herriko liburutegian berrehun eta gehiago dira harpidedunak, baina hamaretik batek jotzen du euskal-liburu alderat.

Kontuan euki behar dugu, Oinatik 2.400 familia eta 11.000 biztanle baino gehiago gerala...

IRAKASKINTZA

Bi mailtako irakaskintza artuko dut kontuan. Bata unean: ikastola. Bestea, Alfabetatze kanpaina eta hortik aurrerako kulturatzeko lanak.

Ikastola badugu Oinatik, eztabaida eta akats haundiakin, ez dut ezer esan nahi horren gain. Horri asko bierko litzake bete. Nahiago dut esatea hau: hamar ume badira herrian eskola bidean eta bat bakarrik edo gutxiago joaten da ikastolarutz. Ba dago zer egin franko.

Alfabetatze kanpaina, honek bait du ikaragarriko garrantzia. Oinatik badaukagu hontaz ari dan batzorde bat eta urtero antolatzen du bere irakustaldia. Nor izan dira ikasleak? Nik jakin dudanez asko ezdaldunak eta euskal-erdaldunak. Ene ustez lehenez Alfabetatze kanpaina euskaldunentzat da, eta egia esan, badugu horren beharra Oinatiko jendeak, ez bakarrik gramatikoa aldetik, baizik literaturaz, edertintuz, historiaz, ekonomiaz, langile problemaz, etab. Ez ote da posible Alfabetatze kanpaina hauetaz osatzea, taldeak, antolatuz urte gutxian lana egiteko? Ene ustez hemen egon ditek euskal kultura eta politika jokabideen oinarria.

ANTZERKIA, LITERATURA, BERBALDIK ETAB.

Gure artean badaukagu antzerki talde bat. Egia esan ez du askotan belarria erakusten. Urtean behin edo... Ene ustez ez dago horrela benetako lanik egiterik. Jokabide honekin «hoby» bat besterik ez dela esango nuke.

Literatura eta kultura lanak....., ba ez dakit zer esan. Ba ote dago ezer esateko. Goi-Argi parrokiako illerokoa ezer gutxi idazten da euskeraz eta ezer ez funtzekorik. Liburutegiko agerkaian orain arte artikulua bat edo beste... eta nun gehiago? Kanpoko aldizkarietan, baina nun? Nun dira gure unibersitariok?

Azkenik berbaldiak edo hitzaldiak. Urtearen buruan amar berbeldi ematen badira, bederatzik erderaz izaten. Nik uste dut, hoiak erderaz egiten badira ez dala hizlari gertatuak falta diralako baizik jendeak nahiago dualeko gai asko erderaz entzutea. Honela berdin esan genezake zineforam etabarrekin.

Saiatu naiz egiazko datok batzen. Askok esango dabe dato gehienak negatiboak dirala. Baiteke. Baina nik horrela ikusten dut egoera, eta nahiago dut dato negatibo hoiak argitaratzea eta aztertzea, ahal baldin bada erremedioak ipintzeko.

Hemendik aurrera bakoitzak atera ditzala bere konklusioak. Amen.

FELIX M.ª UGARTE

(1) Hontaz badago artikulua bat idatzita: «Hizkuntza Oinatik». Elorza T. (Bolet. Bibliot. Munic. n.º 2).

AITA MADINA

Datorren urriaren 7an, Errosario egunez, goratarre bat egingo zaio AITA MADINARI bere jaioterriko San Miguel Eliz Nagusian. Arratsaldeko zazpitan asiko da.

EGITARAUA

Leenengo zatia «ORREAGA» euskal jarraipena orkestak «ILLETA» ERESIA koru eta orkestak «AGUR MARIA» koru eta orkestak «AITA GUREA» koru eta orkestak Bigarren zatia «ARANTZAZU» olerkia koru eta orkestak

Parte artuko dutenak: Donostiako Orkesta Gasteizko M. Iradier Korua Oñatiko «Oñati» Korua Zuzendari: Jose M.ª Gonzalez Bastida.

—oOo—


Nor zan Aita Madina? Euskalerririk, zoritxarrez, oraindik bear aibat ezagutu gabe ies egin digun Txipitxalle (Oñati) baserriko semea.

Gorputzez arin eta bizkor, baiñan buruz bizkorrago genuen Euskalerriko musikagillerik onenetakoa Esandakoaren lekuko, or goian agertzen diran bere lan oiek. Baiñan, bear bada, ezagunago askorentzat gure arteko «zortzikoteak» ain maiz abesten dituzten euskal kutsu aundiko eresiegatik:

Beti eskamak kentzen, Oles ez-konberriak, Dringilin Dron, Azokan etab.

Baiña bere lan guzti edo geienen berri jakin nai duenak, naiko luke «TXISTULARI» aldizkiaren 71 zenbakira jotzea, an ikusiko baititu oraindik orain, Jose Antonio Arana Martijak Aita Madinari dagozkion bizitzako eta musika egintzako berriak nagusienak.

Alaz quztiz, utsunetxo bat aurkitzen degu aipaturiko eta ain geresgarri dan «TXISTULARIKO» lanean. Oñatiko seme jator au. ain zuzen. an ageri ez dan lan batez eresgillen artean ezagutuzera eman zan. 1936ko uztaren azkenetan, Bizkaia. Gipuzkoa eta Arabak artean Elizbarruti bakarra osatzen zute-



AITA MADINA

nean, A. Madinaren errian ospatu zan Euskalerriko leen «Mariaren Batzarra» edo kongreso, eta azkena.

Gertakizun gogoangarri ura zala, Gasteizko Apaizgaitegiak norgeiagoka ba eratu zuan Mariaren Batzar ortarako Himno edo ereserki berri bat osatzeko. A. Madina gertatu zan irabazle, eta ixilpetik plazara irten. Geroztik bere izena, gelditu gabe, goratuz eta edertuz joan da. Jaunak oraintsu urtebete bereganatu arte.

Itz gutxitan esateko, euskal semeetatik musika egillerik onenetakoa izan degu Aita Madina.

Azutu ezinezko zaigu Zubillagako seme ospatsua ezagutzeko zoriona izan gendunoi, bere Erri eta Erri ontako izkuntza, jakintza eta oiturrei zien maitasun eta arreta. Gazte gaztetandik utzi bear izan zuen Euskalerria, baiñan onek ez zion kein ere galerazi bere Erriko jakintza gorabeherak ezagutzea eta ondolik jarraitzea.

Musika zuen, ezbaierik gabe, bere jostallurik maiteena. Alabaña, jolas bezela artu oi zuen egiteko ori bere azken urteak arte. Alare, jolasean bezela artu arren, gure arteko musikagillerik onenen maillara iritxi zan. A. Madinaren nortasun aberatsaren adierazle. Izan ere bere egiteko nagusia apaiz egintza eta egiteko oni eskeifi zizkion bere bizitzako arreta eta kemenik geien eta onenak. Musika berri, erriko eta eraskoiak egiten maixu oparo bezela agertzen zana, unigarrigo azaltzen zan apaiz lanetan. Batez ere bere esku zabaltasunak arritzen zituen aren inguruko anaia eta adiskideak. A. Madina Laterandarrak ez zekien ezetik esaten. Aren etxea denon etxea zen, aren gauzak, denenak. Madinaren biotz eta eskuzabalak zenbait egiazko eta gezurrezko beartsuei ez ote die lagundu! Mundu ontan ezerk mindu bazuen, lagun izenekoen artean ain maiz ikusten den zekenkeri eta zimurkeriak mindu zuen.

Artean bizi zala, ondo irabazitako omenaldi berezia eskeintzeko genbiltzan. Ustekabean, 1972ko iraiaren 30ean, ondo eldutako frutuak erori oi diran erara joan zitzaigun. Urtebete geroago Oñatiko erriak ain maite izan zuen bere seme maiteenetakolari goratarre egitea doa. Ondo irabazia eta ondo egia.

Izan ere, bere auzotar batek zioenez, olako gizonik ez bai litzake il ere egin bear.

Oinatiko zaarren bizi lekua

1969ko urtarrilaren leenengoan jarri zan leenbiziko arria. Ia bost urte asi zala eta oraindik bukatzeke. Ez da asko fatla, baiña hai zozzer.

Dirurik ezean egon da ia urtebetean geldi. Langintza aundia sartu fait zan etxe nagusi ura asi eta aurrera eramaten eta or, bukatzeke, zenbat bialeku ta buru-auste aurrean dabilzan gizaseme taidearentzat. Albiste ugari bada belarrietan, iritziak emendik, eta kontsejuak bestetik, baiña dirua sortzeko erremediorik ez.

Onezkerok, uste da, zelan edo ala, laister ikusiko dala asitako lan orri gaina emanda, gure zaarren onerako.

Baiña ze arazo gertatzen zaio komisio edo talde orri, aurrera eraman eziña, falta dana bukatzeko?

Esaten dute zazpi bat milloi falta dutela eta zuzentzeko biderik ezin arkitu.

	Pta.
Orain artekoa omen da	20.500.000
Aurrerako langintzak, nola etxea bukatzeko eta urbanizazioa	5.000.000
DANA	25.500.000
Ordaindutako guztia	13.571.000
Gelditzen dan zorra	11.929.000
Etxaluze etxea saltzen danean kalkulaten da, bost milloi edo geiago aterako dala	5.000.000
Nundik atera pentsatu bear dana	6.929.000

Komisioak, sukalde eta inguruko tresnak erosirik ditu, baita ordainduak ere Fagor Industriali milloi erdi pezeta inguru.

Gerturik dago ba, laister martxan jartzeko, etxe aundi eta eder ori, ciñatiar danok nai degun bezela. Nola nai ere, komisio orrek laguntzaren bearra izango du falta zaila betetzeko.


Bestalde, jakin bear degu Madrid aldean ateran bat jo dutela laguntza eske baiño ango erantzuna zera izan da, «Seguridad Social» delakcan sartzeko edo... Orre-fa ordea ez dago argi Oñatiko errieari zer jabetasun geratuko litzaikeen, ainbeste kosta zaion etxean. Orregatik ez dirudi bide ortatik ezer egingo danik.

Badira beste batzuk, etxea bu-

katzeak herak baiño lan aundia-gagoak sortuko dituela gero eustek, diotenak. Gero martxa orri neal erantzun? Dana dala, komisioaren iritzi irekitzea da eta gero ikustea zenbateraino degun erantzuteko bidea. Eta gainera, etxea iriki eta gero, erriko zenbait zerbitzutarako ere erabil daitekeia uste dugu.

Nola nai ere, erabaki bat artu aurretik bidezko deritzagu erriari konsultatxo bat egiteari.

K



ANA MARI

ILLE - MOZTEGIA Kosmetolojia

Zumalakarregi, 2

Urrutizkiña: 78 14 04

— O Ñ A T I —

GALARZA

FARMAZIA ETA DROGERIA

Zuazola, 6

Urrutizkiña: 78 11 28

— O Ñ A T I —

Santiago Corcostegui, S. A.

SAKATZE SAKONA (embución profunda) — TXIMIST-INDAR TRESNENTZAT GAIÑERAKOAK — BESTE GAIÑERAKOAK — METAL ZATIAK KAUTXORI MOLDATU-ERREZAK — METALEZKO ERREDITZAK — OETXO TOLESGARRIAK ELASTIKU ZINTZILIKATIK — BURNI LANTZE PAREGABEA

Obispo Otaduy, 25

Urrut.: 781540-781541-781542

— O Ñ A T I —

Erloju eta Bitxitegia

Ignacio M. Ilarramendi

San Andres Auzoan

Maestro Guridi, 1

— MONDRAGON —

Alzaa, 4

Urrutizkiña: 78 16 69

— O Ñ A T E —

TOLOSAKO JAIALDIA

Hil honen 22an eta iragarri bezala Tolosako gau jaialdia ospatu zen. Ez uste genuen bezala, kanpoan eta izarren keinupean sergin uluak entzunik, bertako Beotibar frontoian baizik. Eguraldiak horretara behartu baino lehen ere ba omen zen beste arrazoi bortitzagorik, euria bezala goitik heldua.

Eguraldia eguraldi eta debekunak debeku, iritsi orduko txartelak agortuak ziren eta gazteria izugarria aurkitu genuen frontoi inguruan barruratu ezinik. Atera hurbiltzea ere ez zen momentuko lana izan: bultza hemendik eta tira handik, honi barka eta hari lekua eskatuz lortu genuen halako batean atzaien baimenaz sudurra eta flasha sartzea. Barruan ezin zitekeen aurrerako pausorik egin hanka eta ukalondo itsaso hartan. Iverdia eta denbora behar izan genituen gogozko tokira iristeko; pasabide guztiak itxiak zirela ez genekien nora zuzendu gure branka kanta zale uhalde hartan. Bitartean ikusi ez baina Jon Enbeitaren boza entzuten genuen altabozetan. Presentadore lanetan Joxe Mari Iriondo ari zen.

Pelota lekuan lurtean jarria zegoen jendea, eta txaloak leheritzen ziren bakoitzean aurrerakada bat egiten genuen gerrillero gisa, behin eta berriz gure gorputza kuxkurtuz hurrengo aukeraren zai. Gaizki, eta benetan estu ginen baina bai pozik ere halako jendeketa eta giroa ikusirik. Geldiune horietako batean Bizkaiko neska mutilak izan genituen aldamenean, beste batean Donitane Lohitzunekoak.


Makina lehendabizikoz zapaldu orduko Gorka Knörr zegoen mikrofonon. Lupe gaztetxoak eta Oskarbikoak igo ziren ondoren. Hauek amaitutakoan beste aldekoek zegoen txanda, eta, etortzerik ez zutela izan entzun bagenuen ere, berehalaxe agertu zen Etxamendi beren isiltasunaren arrazoiak emanaz. Xabier Letek eta Lurdesek kanta finak, esan-nahi handikoak eta ongi emanak entzunarazi zizkiguten. Benito Lertxundik Gorka Knörr hartu zuen hasieran laguntzaile. Etxahunen bertseak eta beste kantatzean "biba Barkoze!" eta "biba Atharratze!" entzun genuen jende artetik; zuberotar sutsu baten poz oihuak nonbait. Lehen zati hau Goierriko "Enber" taldeak burutu zuen.

Bigarren partean, Zumarragako trikitixak bide eman zion gazteriari bi ordu luzez korapilatuak eta sorrak zituen zangoak nahi adin bat astintzeko eta berotzeko. Bukatzeko, erromeria izan genuen "Los Mansos" eta Bergarako Iñaki Arriaranek girotua; erdian "Irrintzi" taldeak dantza saio ikusgarri eta ugaria eskaini zigan.

Jaialdi ederra hau, batasun bikaina nabari zelarik kantari eta entzuleen artean. Hauek behi baino gehiagotan lagundu zuten txaloz eta kantuz abeslarien deiarri jarraituz.

Tolosako bilkura ez zen folkloreakeria. Hura batez ere bizitza eta bizi nahia zen. Beto sarri holako jaialdiak, eta, gure alde, zorianik konplituena antolatzaileei.


IBAETA



Gorka Knörr - Joxe Mari Iriondo




Lurdes Iriondo



ENBOR taldea



Benito Lertxundi



Xabier Lete



Iñaki Arriaran




OSKARBI taldea



IRRINTZI taldea



Etxamendi



Joxe Mari Iriondo



Lupe